

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

34/2020 Mozioa, ekainaren 26koa, txartelen eta bitarteko elektronikoen bidez egiten diren ordainketak direla-eta bankuek kobratzen dituzten komisioak ezabatzeko beharrezkoak diren lege-aldaketak azter ditzatela eskatzeko, COVID-19ak eragindako osasun-arriskuak irauten duen bitartean

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko ekainaren 26an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

34/2020 Mozioa, ekainaren 26koa, txartelen eta bitarteko elektronikoen bidez egiten diren ordainketak direla-eta bankuek kobratzen dituzten komisioak ezabatzeko beharrezkoak diren lege-aldaketak azter ditzatela eskatzeko, COVID-19ak eragindako osasun-arriskuak irauten duen bitartean.

Arabako Batzar Nagusiek Gobernu zentralari eta Diputatuen Kongresuari eskatzen diete saltokietan eta zerbitzu-establezimenduetan txartelen eta bitarteko elektronikoen bidez egiten diren ordainketak direla-eta bankuek kobratzen dituzten komisioak ezabatzeko beharrezkoak diren lege-aldaketak azter ditzatela, ordainketa-modu horiek sustatze aldera, seguruagoak baitira, COVID-19ak eragin duen osasun-arriskuak irauten duen bitartean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 26a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA